

h h

euskal
heziketarako
aldizkaria

38

Nazionalismoa eta
Hezkuntza Publiko
ga

Pello Ellakuria
elkarrizke

Alfabetatze
Euskal Herria
Gehigarri

Eraldaketa prozesua
ikastetxea

1999ko MAIATZA




500 pezeta.
20 libera

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

38



Nazionalismoa eta
Hezkuntza Publikoa
gaitzak

Pello Ellakurik
elkarrizketak

Alfabetatzeak
Euskal Herriaren
Gehigarriak

Eraldaketa prozesua
ikastetxea


1999ko MAIATZA

500 pezeta.
20 libera

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

38



**Nazionalismoa eta
Hezkuntza Publikoa**
gaitzak

Pello Ellakuria
elkarrizketak

**Alfabetatzea
Euskal Herria**
Gehigarriak

**Eraketa prozesua
ikastetxea**

1999ko MAIATZA

500 pezeta.
20 libera

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

38




Nazionalismoa eta
Hezkuntza Publikoa
gaitzak


Pello Ellakuria
elkarrizketak


Alfabetatze
Euskal Herria
Gehigarriak


Eraldaketa prozesua
ikastetxea

1999ko MAIATZA









ik asik

Zure harpidetza behar du


4.500 pezeta urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure partehartzea ezinbestekoa zaigu

h h

h h



ik asik

Zure

harpidetza

behar du

4.500 pezeta urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure partehartzea

ezinbestekoa zaigu

h h

h h

hik hasik

Zure harpidetza behar du



4.500 pezeta urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure partehartzea ezinbestekoa zaigu

harpide zaitez!

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....

2. DeituraTel.:.....

HelbideaPosta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ

Aurrezki Kutxa edo Bankua

<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Entitatea				Sukurtsala				K.D.		Zenbakia			



Sinadura

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne)

Hego Euskal Herria
4.500 pezeta
Ipar Euskal Herria
180 libera

hik hasi

Euskal heziketarako
aldizkaria
Industrialdea, 2. Pabilioia
20.160
LASARTE-ORIA.
GIPUZKOA
Tel: 943/ 37 15 45
Faxa: 943/ 36 10 48



k r o n




Berako ikastolak berriro eskatu du legalizazioa

Berako Labiaga ikastolak berriz ere Hezkuntza Departamentura jo du DBHren legalizazioa eskatuz. Denbora luzea darama legalizazioa eskatzen, baina oraindik ez du lortu. CDN ekimen parlamentario bat aurrera eramaten saiatu zen, baina PSN eta UPNk blokeatu egin zuten. Hala ere, ikasle, guraso, irakasle eta beste askoren ekimen eta mobilizazioen ondoren 36 milioitako dirulaguntza bat ematea lortu zuen ikasturte hau finantzatu ahal izateko.

Baina horrek ez du sustraian dagoen arazoa konpondu: legalizazioa. Aurten, bigarren urtez, legalki existitzen ez diren 30 ikasle irtengo dira Labiagatik.

Egoera honen aurrean errekurtsio judizial bat ere ezarri zuen ikastolak eta Javier Markotegi Hezkuntza kontseilaria errekurtsioaren erantzunaren zain dagoela dirudi. Dena dela, ikastolako arduradunek, erresoluzio horren zain egon gabe, irteera hobia ikusten dute: Hezkuntza Departamentuak D ereduko DBH legalki onartzea ikastolari.



k r o n

Berako ikastolak berriro eskatu du legalizazioa

Berako Labiaga ikastolak berriz ere Hezkuntza Departamentura jo du DBHren legalizazioa eskatuz. Denbora luzea darama legalizazioa eskatzen, baina oraindik ez du lortu. CDN ekimen parlamentario bat aurrera eramaten saiatu zen, baina PSN eta UPNk blokeatu egin zuten. Hala ere, ikasle, guraso, irakasle eta beste askoren ekimen eta mobilizazioen ondoren 36 milioitako dirulaguntza bat ematea lortu zuen ikasturte hau finantzatu ahal izateko.

Baina horrek ez du sustraian dagoen arazoa konpondu: legalizazioa. Aurten, bigarren urtez, legalki existitzen ez diren 30 ikasle irtengo dira Labiagatik.

Egoera honen aurrean errekurtsio judizial bat ere ezarri zuen ikastolak eta Javier Markotegi Hezkuntza kontseilaria errekurtsioaren erantzunaren zain dagoela dirudi. Dena dela, ikastolako arduradunek, erresoluzio horren zain egon gabe, irteera hobe ikusten dute: Hezkuntza Departamentuak D ereduko DBH legalki onartzea ikastolari.

0-3 zikloko eskakizuna berriro ere mahai gainean da

k r o n



Hiru urteko haurren aurrematrikulazioan D ereduak gora egin du

EAEko aurrematrikulazio datuak ezagutu dira eta azken 18 urteetako joera apurtuz, 3 urteko haurren kopurua igo egin da. 300 bat haur gehiago matrikulatu dira 1999/2000 ikasturterako. Horrekin batera, euskarazko eredueta matrikulatu direnen kopurua ere gora egin du, %0,9 handitu da B eta D eredueta matrikulatutako haur kopurua. A ereduak, aldiz, %1,8 gutxitu da.

A ereduaren kasuan ez da kopurua soilik aldatuko, A ereduak bera ere bai. A ereduarekin legeak esaten duena ez

dela betetzen onartu dute Hezkuntza Sailekoek eta horregatik EAEk 20 zentrotan hainbat aldaketa egingo direla iragarri dute. 3 eta 6 urte bitarteko haurren artean egingo dira aldaketak, 10 zentro publikotan eta 10 pribatutan. Besteak beste euskara irakasten denean taldeak txikituko dira eta instrumentalak ez diren ikasgaiak euskaraz eman ahal izango dira.

Nafarroan ere D ereduak gora egin du hiru urteko haurren aurrematrikulazioan. %5,6koa izan da gorakada eta batez ere Iruñerrian. Iaz bainoa 46 haur gehiago aurrematrikulatu dira eredu euskaldunean, eta Iruñea barnean mantendu egin da iazko kopurua.

Bestalde, eredu aldaketa eskatu dute ELA, LAB, EILAS, Sortzen eta Ikastolen Elkarteak. Bi eredu ezartzea eskatzen dute: bata euskararekiko kontaktua ziurtatuko duen oinarriko eredu bat eta bestea euskara hizkuntza gidaria izango lukeen eredu elebiduna. Eredu honek Nafarroa osoan D ereduak aukeratzeko posibilitatea emango luke, eta oraingo banaketa geografikoa gaituz.

Berako ikastolak berriro eskatu du legalizazioa

Berako Labiaga ikastolak berriro ere Hezkuntza Departamenturako jo du DBHren legalizazioa eskatuz. Denbora luzea darama legalizazioa eskatzen, baina oraindik ez du lortu. CDN ekimen parlamentario bat aurrera eramaten saiatu zen, baina PSN eta UPNk blokeatu egin zuten. Hala ere, ikasle, guraso, irakasle eta beste askoren ekimen eta mobilizazioen ondoren 36 milioitako dirulaguntza bat ematea lortu zuen ikasturte hau finantzatu ahal izateko.

Baina horrek ez du sustraian dagoen arazoa konpondu: legalizazioa. Aurten, bigarren urtez, legalki existitzen ez diren 30 ikasle irtengo dira Labiagatik.


Egoera honen aurrean errekurtsio judizial bat ere ezarri zuen ikastolak eta Javier Markotegi Hezkuntza kontseilaria errekurtsioaren erantzunaren zain dagoela dirudi. Dena dela, ikastolako arduradunek, erresoluzio horren zain egon gabe, irteera hobeak ikusten dute: Hezkuntza Departamentuak D ereduko DBH legalki onartzea ikastolari.

E

N

H





E

N

H



GAIA

Euskal Nazio

Hezkuntza



Txoli MATEOS
EHUko Soziologiako irakaslea


EAEko ikastolen azken publikazioa gertatu zenetik sei urte iragan dira. Zeresan ugari eman zuen prozesua izan zen eta Txoli Mateos EHUko Soziologiako irakasleari tesia egiteko aitzakia eman diona. Euskal nazionalismoa, abertzaletasuna, hezkuntza publikoa eta ikastola aztertu ditu lan honetan.


Azal dezadan, lehenik eta behin, zein diren tesiaren aztergaiaren jatorria eta haren kokapen metodologikoa.

Gauza jakina da Euskal Autonomia Erkidegoan 1993an ebatzi zen Euskal Eskola Publikoaren Legeak hautsak erabat harrotu zituela. Momentu hartan, lurralde horretako ikastolek sare publikora biltzeko edo sare pribatuan geratzeko erabakia hartu behar izan zuten. Ordura arteko egoera atipikoari amaiera eman gura izan zitzaion lege harekin, ondorio praktiko guztietan, ikastolek sare bereizi bat osatzen baitzuten. Eta jakina da ere berean zelango tirabira




**Euskal nazionalismoa eta
hezkuntza: begiratu historiko
bat**





Euskal nazionalismoa eta
hezkuntza: begiratu historiko
bat



kaera historikoaren arabera ulertu behar dela. Eta hirugarrena, azkenik, mugimendu nazionalistak ez direla monolitikoak; aitzitik, barne ugaritasuna izaten da euren bereizgarrietako bat. Bestela esanda, mugimendu nazionalistaren baitako taldeek ez dute berdin irudikatzen nazioa, eta zenbait jokaera politikori eutsi ahal diote; eta, horrez gain, hainbat gizarte eredu etiko edota ekonomiko, besteak beste, defendatu ahal dituzte.

Baina mugimendu nazionalistek, hezkuntzaz ari direlarik, ez dihardute hezkuntza abstraktuaz, sistema jakin bati begira baizik. Hortaz, Mendebaleko gizarteetan hezkuntza sistemek eduki duten sorrera eta bilakaeraren esangura soziologikoan sakontzea izan zen hurrengo urratsa. Gai horren inguruan dagoen ikuspegi teoriko sortari begiratu bat eman eta gero, hezkuntza sistemaren sorrera nazio-estatuaren finkapenari eta berarekin batera datozen nazioari buruzko uste berriei lotzen diena hautatu nuen, gai honetarako ikertze lerro eman korrena zelakoan. Horrez gain, kontuan hartzekoa zen hezkuntza sistemen garapena ez dela beretsua izan herrialde guztietan, eta aldaera hori aintzat hartzei baitezpadakoa iritzi nion. Hezkuntza, prisma bikoitz horren arabera aztertuz gero, ulergarri suertatzen da mugimendu nazionalistak hartaz egin lezakeen erabilera egokiro kokatzeko. Ildo horretatik joanda, uste hedatu samarra da mugimendu nazionalistek beti jotzen dutela euren eraginpeko eskola sareak sortzera. Baina mugimendu nazionalista guztiek? Mugimendu nazionalistaren baitako talde guztiek? Edozein hezkuntza sistemaren baitan? Edozein egoera sozial edota politikotan? Horiexek ziren erantzun behar ziren galderak.

Alabaina, alde zuretik argitu beharreko arazo bat zegoen: zeri deitu hezkuntza *publikoa*. Hartarako, arlo publikoaren ulerkeraz edo publikotasunaz hausnartu beharra zegoen. Estatu eta gizarte zibilaren arteko harremanak aztergai duten analisi multzoari erreparatuz gero, hiru ondorio nagusi atera zitezkeen: batetik, arlo publiko eta pribatuaren arteko mugak egungo gizarteetan ez daudela bat ere zehazturik; bestetik, publikotasunari buruzko ulerkera ikuspegi politiko eta batez ere ideologikoak

zeharo baldintzatua datorrela; eta, azkenik, posible dela lerro ideologiko antzetatik abiatu, arlo publikoari buruzko zenbait irakurketa ezberdin garatzea. Gogoeta horiek hezkuntza arloa eraman ez gero, esan daiteke hezkuntzak publiko izan behar duen ala ez eta horrek zer ekarri behar duen, eztabaida normatiboa dela, inola ere teoria hutsaren mailan jar daitekeena. Horrela, liberalismoak gizarte zibilaren protagonismoa nabarmentzen du giza askatasunaren mesedean doalakoan, eta hezkuntza ekimenen arteko lehiakortasuna hobesten du. Baina, ezkerren kasuan, *publikotasun kontzeptu gogorra* eta *publikotasun kontzeptu biguna* deitu ditudan garatu dira. Lehenak administrazioari eransten dio gizarte ezberdintasunak apaltzeko ahalmena, eta bigarrenak gizarte zibilari eman nahi dio protagonismoa, baina merkatu lehia saihestuz. Iritzi sorta hori kontuan hartuta, hezkuntza publikoa administrazioaren kudeantza zuzenaren pean dagoen hezkuntza bezala ulertzea erabaki nuen, jakinik ere egungo hezkuntza mota guztiek dutela estatuaren babes eta kontrol handia.

Nola edo hala, beraz, marrazturik utzi nituen mugimendu nazionalista jakin batek sare publiko edo pribatua hobeteko eduki litzakeen baldintzapenak:

- 1) Mugimenduaren jokaera politikoa eta eskuratutako botere instituzional maila.
- 2) Arlo publikoaren, eta beraz, hezkuntza publikoaren ulerkera ideologikoa.
- 3) Tokian tokiko hezkuntza sistemaren ezaugarriak.

Hiru aldaera horietan oinarriturik, aurreikusi nituen mugimendu nazionalista batek hezkuntza publikoari begira gara lezakeen jokaerarako hipotesi posibleak, argi utzirik ezinezkoa dela ildo orokorrik aurkeztea. Tokian tokiko egoerak kontuan hartu beharra argiro ikus daiteke Katalunia eta Ipar Irlandako nazionalismoaren hezkuntza jokaera ezberdinetan. Lehenengoaren kasuan, hezkuntza publikoaren ardura hartzeko prestutasuna erakutsi du, betiere eskuratu duen botere instituzionalaz jabeturik. Bigarrenak, aldiz, aldaera kultural, politiko eta sozial askoren harira, babes handia aurkitu du hezkuntza pribatu katolikoan.


Hortik abiatu ekin nion euskal nazionalismoaren sorreratik, Ipar eta Hego Euskal Herrian abertzaleek hezkuntzari begira hobetsi duten jardunaren deskribapen historiko xume bat egiteari.


Euskal nazionalismoa eta hezkuntza: begiratu historiko bat


Euskal nazionalismoak, bere sorreratik bertatik, oso abagune ezberdinak ezagutu ditu, bai hedapen sozialean, bai arrakasta politikoan. Horrez gain, bilakaera nabarmena jaso du nazio identitatearen definizioari eta nazio lurraldearen egituraketa politikorako hobetsi dituen helburuei begiratzen badiegu. Horiek guztiek isla ukazina eduki dute mugimendu abertzaleak hezkuntzari begira erabili duen diskurtsoan eta proposatu dituen alternatibetan.

Larregi ez luzatzearen, azterketa historiko horretatik momentu bi nabarmendu gura ditut oraingoan, esanguratsuak irizten baitiet hezkuntza publikoari begira abertzaleek ez dutela beti era berean jokatu frogatzeko. Bata, XX. mendeko bigarren hamarkadari dagokio. Garai hartan, mugimendu autonomizaleak, Komunio alderdi nazionalistan bildurik, hezkuntza publikoaren norabidearen ardura hartzeko prestutasuna erakutsi zuen estrainekoz. Mugimenduak euskal gizartearen nazionalizazioari eman zion lehentasunak eta hartan hezkuntzak bete zezakeen zereginarekiko fede irmoak bultzatu zituzten Landeta, Eleizalde eta Belaustegigoitia bezalako abertzaleak udal eta estatu eskolen okerrak bideratzeko neurri zehatzak proposatzera, eta, horrez gain, eskuratu zuen botere instituzionalaz baliaturik, Bizkaiko Diputazioaren menpe jardun zuten Auzo Eskolak eratzera, hezkuntza publikoaren kontrola proiektu politiko autonomistaren zutabe bezala erabiliz.

Bigarren momentua frankismoaren garaiko nazionalismo eraberrituari dagokio, besteak beste, nazio identitatean euskarak hartu zuen garrantziaren harira. Orduan nagusitu zen jokaera ikastola sortzea eta eustea izan zen, eta, ondorioz, eskola publiko abertzaleen lan politikotik zokoraturik geratu zen. Giro politiko erasokorraren kariatz, eskola publiko









ziren, eta, zenbaiten ustez, bata ala bestea aukeratu beharra zegoen; alegia, frankismoan egindako hautua birpentsatu beharra etorri zen, eta, handik, iritzi ezberdintasuna eta ondorengo gatazka.

Hiru aldeak aztertutik, hezkuntzaren eztabaidaren protagonista nagusitzat alderdi politiko abertzaleak hartu nituen, eurak izan baitziren prozesua bideratzeko erabaki ahalmen nabaria eduki zutenak; baina, eurekin batera, ikusi nuen sindikatu abertzaleek, Ikastolen Elkarteak eta politikoki eratu gabeko gogaide abertzaleek esandakoa ere kontuan hartzekoa zela, eztabaida edo gatazka, jakina denez, ez baitzen mugatu indar politikoetara.

Prozesuaren aurkezpena zati bitan dago banaturik: batean, diskurtsoen analisia; eta, bestean, proposamen jakinak eta proposamenen inguruan sortu ziren mota askotako aliantzak eta aurkakotasunak.

Lehenengo zatiari helduz, erakunde eta gogaide abertzaleek arlo publikoaz iragarri zituzten diskurtsoen nondik norakoak, funtsean, ikusmolde ideologikoaren arabera sailkatu behar dira, baina hala ere, zaila da continuum ideologiko huts baten arabera jartzea, abagune politikoak eta talde bakoitzaren jokaerak neurri handi batez baldintzatzen baitzituzten publikotasunari buruzko diskurtso horiek. Den-denek uko egiten zioten, adibidez, eskola publikoa eta estatu eskola parekidetzeari. Hala ere, ezkerreko ikuskerak joera nabarmena erakusten zuen jarrera pribatuzaleak gaitzesteko, eta publikotasun kontzeptu gogorra edota biguna garatzeko. Nazionalismo moderatuak, aldiz, gizarte zibilaren

erantzukizuna edota gurasoen askatasuna gailendu beharra defendatzen zuen.

Arlo publikoari buruzko diskurtsoarekin batera, eta diskurtsoa bera baldintzatutik, eskola publikoak eta ikastolak ezaugarripen berria jaso zuten. Nazioa ulertzeko abertzaleek zuten moduek ideia ugaritasuna ekarri zuten ikastolaz eta eskola publikoaz berba egiteko orduan; eta islaturik agertu ziren, esate baterako, lurraldeari, herritarren integrazioari, edota euskarari ematen zitzaaien garrantzi ezberdina. Hala ere, esan daiteke abertzaleen ikuspegi politikoek neurri handi batez baldintzatu zituztela ikuspegiok. Adibide bakarra jarrita, nazionalismoaren zenbait sektoretan eraketa autonomikoak eskuratu zuen zilegitasunak ahalbidetu zuen ikastolaren zeregina, nola edo hala, bukatutzat ematea eta, ondorioz, eskola publikoa hobestea Euskal Herriko berezko eskola bezala. Hala eta guztiz ere, publikotasunari buruzko diskurtsoekin gertatzen zen modu berean, abertzale guztiak baturik agertzen ziren hezkuntza sistema propio baten eraikuntzaren aldarrikapenean.



Horraino azaldutako ikuspegi guztiek funtsezko galdera bat zekarten eurekin: diskurtsoetatik harago, zeren arabera ulertu behar ziren ikastolen publikazioan hobetsi ziren irtenbideak eta gauzatu ziren aliantzak? Abertzaleen diskurtsoetan nabarmendu ziren diferentzia nagusiak hizkuntzari, politikari eta ideologia-ri bazegozkien, gatazka linguistikoa, gatazka ideologikoa, ala gatazka politiko bat garatu zen? Ikusteko zegoen, hortaz, nola kokatu ziren erakunde abertzaleak


hiru ardatz horien arabera.



Nire iritziz, ardatz linguistikoak ez du azalpen nahikorik eskaintzen jarrera ezberdinak ulertzeko, euskara gai aipatuena izan bazen ere. Izatez, euskararen izenean, eta batzuetan ikuspegi erradikaletatik abiatutik, topa zitekeen eskola sare publikora biltzea argi eta garbi defendatzen zuenik. Horrez gain, Euskal Herriko hezkuntza sistemak haur euskaldunak egin behar dituenaz inolako zalantzarik ez zegoen abertzale guztien aldetik. Aldiz, tirabira bat baino gehiago sortu zen indar politiko ez-abertzaleekin, batez ere, PSE-PSOErekin, euskarari muzin egitea egozten baitzion euskal nazionalismoak. Ardatz linguistikoak, beraz, euskal nazionalismoa eta ez-abertzaleak banatu zituen, batik bat; baina, diodan berriro, banaketa hori diskurtso mailan baizik ez zen garatu.

Bigarren ardatza ikuskera ideologikoak ezarri zuen. Horren arabera, ezkerreko abertzaleak nolabait baturik agertu ziren EAJri egindako kritikan, 80ko hamarkadaren erdialdera arte, batez ere. Eskola publikoarekiko utzikeria egozten zioten, eta ikastola sektore pribilegiatuentzako eskola bihurtu nahi zuela salatu. Ardatz ideologiko horren barruan sar daitekeen ardatz sindikalak Ikastolen Elkartearen eta sindikatu abertzaleen arteko harreman onak oztopatu zituen prozesu osoan zehar. Sindikatuok Ikastolen Elkarteari aurpegiratzen zioten joera pribatuzalea edukitzea, irakasleen eskubideei muzin egitea eta eskola publikoa desprestigiitzea. Nabardura asko egin behar dira, dena dela, LAB sindikatuaren kasuan, esate baterako, pisu handiagoa eduki baitzuten ardatz politikoak.

Izan ere, prozesu osoan zehar abertzaleen artean gauzatu ziren aliantzak eta aurkakotasunak ulertzeko, baita proposatu ziren irtenbideez jabetzeko ere, *ardatz politikoa* nabarmendu behar da, ardatz ideologikoak eta sindikalak sekula garrantzirik galdu ez zuten arren. Beste era batera esanda, ikastolen publikazioa batik bat *auzi politikoa* izan zela esaten ari naiz. Aldi bi bereiz daitezke prozesu hartan, abagune politikoak jasotako ezaugarrien arabera. Lehenengo aldi, botere instituzionalaren jabe zen nazionalismoa eta oposizioko abertzaleak jarri ziren aurrez aurre. EAJk, prozesu autonomikoa







elkarriketa



PELLO ELLAKURIA






“Administrazioak helburu orokorrek finkatu behar ditu, baina ez horiek lortzeko pausoak, hori ikastetxeei dagokie”




Pello ELLAKURIA. Euskadiko Eskola Kontseiluaren lehendakaria







PELLO ELLAKURIA



“*Legeak gure egoera konkretuari erantzunik ematen ez badio, zergatik jarraitu behar dugu lege horrekin? Legea ez da mugiezina, alda daiteke. Beraz, hitz egin dezagun*”

Nola antolatu beharko luke ikastetxeak? Nola bideratu beharko luke antolakuntza autonomia hori?

Ikastetxearen inguruan dauden guztiek parte hartuz: gurasoek, ikasleek, irakasle erakundeek, irakasleek maila pertsonalean, langile ez-dozenteeek, administraziokoek... Hori oso garrantzitsua da. Denak inplikatu behar dira eta erantzule egin, denen parte hartzea bultzatu.

Erabakiak hartzeko aukera izatea da klabea eta erabaki horiek egonkortasuna izatea ere bai. Horretarako, irakasleriaren egonkortasuna beharrezkoa da, ezta?

Bai, egia da. Azken batean irakasleen egonkortasuna da ikastetxeko proiektua finkatzen duena. Ikastetxearen filosofia finkatzen dutenak irakasleak dira, nahiz eta gainontzekoek ere parte hartu. Hauei ez diet pisurik kentzen, baina ikastetxean bertan parte hartzen dutenei gehiago ematen diet.

Horregatik, irakasleriaren egonkortasuna eta iraunkortasuna funtsezkoak dira, baina baita pertsonalgora mota ere. Ikastetxe bakoitza ezberdina da eta irakasle batzuk egokiagoak dira leku batzuetarako beste batzuetarako baino.

Orduan, ikastetxeak berak aukeratu beharko lituzke irakasleak?

Bai, hala da. Ez litzateke derrigorrez aukeratu behar zerrendan lehenengo dagoena. Lehenengo horrek agian nahiago izango du beste ikastetxe batera joatea, baina lehenengo postu horri ezezkoa esaten badio zerrendan azkena gelditzen da. Beraz, azkena ez gelditzeagatik esango du baiezkoa. Antolaketa aldetik arazo larria da benetan.

Horren arabera Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua irakasleen eskubideen gaintetik ezartzen duzu.

Bai, nik hori garbi daukat. Sindika-

tuen artean gai honen inguruko eztabaidak daude. Baina azken finean hezkuntzaren helburua ez dira irakasleen eskubideak, hezkuntza bera baizik. Helburu pertsonalak egongo balira gainera, ikasleek izango liriateke eta ez irakasleek. Irakaslea zerbitzu hori prestatu behar duena da eta zerbitzu hori proiektu baten barruan dago.



Nik garbi daukat irakasleak bere lana proiektu baten barruan kokatu behar duela.


Norbaitek katedra askatasuna mugatzen ari zarela esan dezake.




Bada, oker dago, hori ez baita katedra askatasuna. Inork ez dio esango bere ikasgaiari zer eduki irakatsi behar duen, baizik eta zer egin behar den gela barruan, nola lan egin behar den, ikastetxearen giro osoa nola bideratu behar den... eta horrek guztiak osatzen du proiektua. Horrekin ados ez dagoena, ez dadila ikastetxe horretara joan. Hori garbi izan behar dugu.

Gelako zeregina, ikasgaiari edukia... aipatu dituzu. Horri lotutako arloa da curriculum edo ikasketa autonomia. Zuen hausnarketetan curriculum oso mugatua dagoela diozue. Zein muga ikusten dituzue?


Azken momentuan ez dago inolako askatasunik. Estatuko curriculum soilik hartzen badugu, hor oinarritzokoa jartzen dela ikusiko dugu, eta horrek denbora guztia kentzen duela ikastetxe bakoitzeko ekarpeni lekuri utzi gabe. Gainera, edukiak finkatzeaz gain, ikas-irakas prozesua bideratzeko urratsak zehazten dira, oso emankorrak izango direnak, baina lan egiteko garaian betetzen ez direnak. Zergatik? Azkenean azterketa egin behar delako eta eduki guztiak irakatsi behar direlako. Eta irakasle prozesu ona dela pentsatu arren, ezin du eduki horiek irakatsi gabe gelditu eta azkenean ikasleek buruz ikasten bukatzen dute. Orduan, ikasketa prozesu bat bultzatu







PELLO ELLAKURIA



“*Hezkuntzaren helburua ez dira irakasleen eskubideak, hezkuntza bera baizik. Helburu pertsonalak egongo balira gainera, ikasleenak izango lirateke eta ez irakasleenak*”

lako autonomia eta egin ditzagun proposamenak. Gero parlamentariak erabakiko dute, baina guk esan dezakegu oraingo legeak ez duela gure beharriak betetzeko aukera ematen.

Autonomia garatu duten esperientziak egon dira Euskal Herrian, ikastolen mugimendua, adibidez. Zergatik ez dira onartu?

Egia esan, pena da esperientzia konkretuak kontrastatuak izan eta horren emaitzak ez aprobetxatzea. Noraino iritsi diren eta horra iristeko zein baldintza behar diren nahiko garbi dago. Hori ikusi eta guztiontzat orokortu daitezkeenak zein diren ikusi beharko litzateke.

Oiartzunen esperientzia berri bat martxan jartzera doaz: udal ikastola. Udalak gertutik kontrolatzeko aukera ematen du eta herritarren parte hartzea handiagotzeko ere bai. Zure ustez, ez al lukete Euskal Herrian izugarriko arrakasta edukiko horrelako esperientziak edo ereduak?

Gure idatzietan aipatu izan dugu udal ikastola edo eskolaren eredu. Badirudi gure historia ikusita dena goitik egin dela eta egin behar dela, hots, administrazio orokorretik. Eta ondorioz esperientzia horiek ez ditugu ezagutzen.

Administrazio orokorraren aldetik askatasun hori emateari beldurra ere badagoela esango nuke. Baina zeinek ezagutzen du hobeto Oiartzungo bailara? Bertakoek, noski. Eta Oiartzungo udaletxeak ez al dauka interesik herriko eskola primeran joateko eta bertako jendea ondo prestatzeko? Horrelako esperientziak aberasgarriak direla iruditzen zait eta erantzun zuzenagoa eman diezaieela eskakizunei. Herri bakoitzak eskola bere herrikoa bezala kontsideratzen eta sentitzen badu, parte-hartzea handiagoa izango da eta ez da irla bat bezala geldituko.

Dena dela, azken finean, herri bakoitzaren historia eta filosofiaren arabera, aukera gehiago edo gutxiago egongo da horrelako proiektu bat bultzatzeko.

Eus

Euskadiko Eskola Kontseiluak ondo-ko helburu, estrategia eta gomendioak bultzatu nahi ditu behintzat, fondo publikoak eta titulartasun publikoa dituzten zentroentzat, gobernu organoak osatzeko sistema, partaidetza demokratikoa indartzeko sistema eta jarraitasun eta kontrol sistema berberak ezarriz:

1) Eskola kultura aldaraztea eta ikastetxeak proiektu baten inguruan antolatzea.

1.1. Hezkuntza proiektuak eta zentroko proiektuak egiteko prozesu kolektiboak bultzatzea.

- Hezkuntza erkidego osoa inplikatzeko hezkuntza proiektua egitean;
- Irakasle guztiak inplikatzeko ikasketaproiektua egitean;
- Zentroen gaitasuna aintzatestea, proiektuaren arabera jardun eta antola dezaten;
- Kurtsoaren hasierako erabakiak aldatzea, zentroek autoarauketarako gaitasuna izan dezaten marko orokorraren barruan.

1.2. Ikastetxeen autonomiaren eta berriztapen eta saiakuntza prozesuen alde egitea.

- Lege esparruaren eta gizarte inguruko ahalmenak garatzea;
- Ikastetxeetako autonomi esperientziak errespetatzea;
- Berriztapen eta esperimentazio prozesuak sustatzea;
- Zentroei hizkuntza tratamenduan eta ikasleen ibilbidean esku hartzen uztea.

1.3. Ikastetxeetako prozesuen jarraipen eta ebaluazio sistemak ezartzea.

- Ordezkaritza organu Gorenak (OOG) ezarritako helburuen arabera ebaluatzea;
- Ikastetxeei funtzionamendurako ebaluazio ereduak eskaintzea;
- Parte hartzeko kultura eta kalitatearen autokontrola bultzatzea.


2) Zuzendaritza lana bultzatzea eta ikastetxeetan antolaketa eta partaidetza egiturak garatzea.

2.1. Zuzendaritza lana birdefinitu, indartu eta profesionalizatzea.

Euskal ikasleek III. Biltzar Nazionala ospatuko dute

Biltzarraren ildo nagusiak

Ondorioak zabaltzeko asmoa



Euskal ikasleek III. Biltzar Nazionala ospatuko dute

Biltzarraren ildo nagusiak

Ondorioak zabaltzeko asmoa

ik asi

Euskal ikasleek III. Biltzar Nazionala ospatuko dute

Euskal ikasleak Agurainen elkartuko dira III. Biltzar Nazionala ospatzeko maiatzaren 7, 8 eta 9an. Ikasle Abertzaleak, Duina Ikasle Koordinadora, Unibertsitateko Euskal Adarra, Lanbide Heziketako Ikasle Euskaldunak, Jarrai gazte erakundea, Ipar Euskal Herriko Ikasleen Elkarteak, Presoen aldeko Taldeak eta 7 Baietz!ek antolatu dute biltzarra ikasleak elkartzeko eta hainbat gai eztabaidatzeko.

Erakunde antolatzaileek adierazi dute-nez Lizarra-Garaziko hitzarmenaren ondotik Euskal Herrian prozesu berria jarri da abian eta horren ardatzak Euskal Herria maila ezberdinetan eraikitzea eta gorpuztea izan behar du. Horrela, irakaskuntzan ere gehiengo soziala egituratu behar dela diote irakaskuntzatik ere Euskal Herria eraiki dadin, eta zehatzago esanda, irakaskuntza propioaren eraikuntza.

Irakaskuntza propio horren aldeko eraikuntzan sektore ezberdinek parte hartu behar dute (irakasleek, gurasoek,

herritarrek, ikasleek...) eta bakoitzak bere ekarpena bideratzeko modua aurkitu beharko duela uste dute talde hauek.

Horregatik, ikasle hauek beraien ekarpenak egiteko eta euskal eskola propioaren eraikuntzan parte hartzeko prest daude.

Era berean, irakaskuntzaren egoera eta euskalduntzearen beharra azpimarratzen dituzte eta horretan ere urratsak emateko asmoa trinkoa dute. "Ikasleek irakaskuntza eredu arrotz eta zaharkitu hau gainditzeko, iraultzeko eta geure eredu abian jartzeko une ezin hobea dugu" erakunde hauen iritziz. Bide horretan sortu beharreko eredu berriak propioa izan behar duela azpimarratzen dute, hots, Euskal Herriak erabakia eta hizkuntzaz eta edukiz euskalduna.

Idea hauek garbi edukita, euskal ikasleek euren ekarpenen inguruan hausnartu, erabaki eta hitza hartzeko beharra ikusi dute eta hori aurrera eramateko gune baten premia. Horregatik bilduko dira Euskal Ikasleen III. Biltzar Nazionalan.

Gune egokia dela adierazi dute, marko demokratikoa, anitza eta nazionala delako. Demokratikoa ikasle talde nahiz subjektu desberdinek parte hartuko dutelako; anitza, esparru ezberdinetan lan egiten duen ikasleria bilduko delako; eta nazionala, ikasle horiek Euskal Herri osoak izango direlako.

Biltzarren ildo nagusiak

Biltzar Nazionalaren ardatzak bi izanen dira:

1- Egungo irakaskuntza markoa gainditu eta irakaskuntza marko berri bat eraikitzea euskalduntzearen bitartez. Izan ere, egungo eredu antidemokratiko eta antieuskalduna izanik, berau gainditzeko beharra ikusten dute. Euskara eta euskal nortasunaren ukapenean oinarritzen den eredu dela diote. Beraz hau gainditu eta berria eraiki behar da eta honen ardatzak euskara izan behar du. Irakaskuntza hizkuntzaz zein edukiz euskaldundu behar dela argi eta garbi dute. Bizibaldintzen zein demokraziaren aldeko borrokek leku garrantzitsua badute ere, euskalduntzearen aldeko garrantzia erantsi bat du eta horixe izango da lehen erronka.

2- Euskal eredu eraikitzeke ikasle uholde bat sortu beharra dago eta berau nola sortuko duten eztabaidatuko dute Biltzar Nazionalan.


Biltzarrean zazpi gune ezberdinetan banatuko dira Agurainera hurbiltzen diren ikasleak: unibertsitatea euskalduntzeko gunea, Lanbide Heziketa euskalduntzeko gunea, erdal eredu gunea, erdal edukien gunea, irakaskuntza ertain euskaldunaren gunea, aldizkarien gunea eta ikastetxe euskaldunen gunea. Bakoitzean arlo konkretu horretako egoera eta egin daitekeena aztertu, hausnartu, eztabaidatu eta erabakiko da.

Ondorioak zabaltzeko asmoa


Biltzar Nazionalaren ondotik hausnarketa egun nazional bat antolatuko dute ikastetxe guztietan hartu behar diren erronkak eztabaidatzeko. Eta ondoren, Euskal Ikasle on Erronken Taula Nazionala osatuko dute.





Alfabetatzea Euskal Herrian (1500 - 1994)




Nafarroako Erregetzatik
beharrezko eskolaratzera






Alfabetatzea Euskal Herrian (1500 - 1994)



Nafarroako Erregetzatik
beharrezko eskolaratzera



Hik Hasik argitaratu eta banatu duen Euskal Eskolaren azken 20 urteak liburuskan Sabin Oregiren "Alfabetatzea Euskal Herrian (1500-1994)" kolaborazioko mapetan koloreak ez dira nahi bezain ongi bereizten. Hori konpontzeko eta egin dezakegun irakurketa eta erabilpena egokiak izan daitezen, kolaborazio hori orrialde hauetan berrargitaratu dugu.

Alfabetatzea Euskal Herrian (1500 - 1994)



Sabin OREGI
Informazio eta Komunikazioa
Zientzietan Doktorea

Ondorengo lerroetan ikusiko dugunez, Euskal Herriak gaztelera / frantsesean bizi zuen alfabetatze prozesuak alfabetatu gabeko herritarrak akulturatu zituen, ondoren akulturatuak berreuskalduntzeari ekin dio.

Egun gure lurraldean euskararen irakaskuntza txertatua guztiz normaldua dagoela iruditzen zaigu. Dударik gabe Ikastolaren sorkuntzak eta geroago irakaskuntza elebiduneko ereduak (D, B, A, eta X (G)) horretan lagundu dute.

Hala ere, Herri honetan egiten ari den

lan ezkerga honek ez du lortu euskararen giza-irudia, estatusa, aldatzea.

Arazoa den bezala ulertu ahal izateko, historian atzera begirako lana egin beharko dugu.


Nafarroako Erregetzatik beharrezko eskolaratza

Fernando el Católico-k 1512. urtean Nafarroako Erregetzaren Hego-Aunamendiko lurraldeak okupatu zituen. Hala ere, ekintza honen ondorioz ez zen hizkuntza aldaketarik nabaritu gizarte hartan. Geroago, eskolaratzea beharrezkoa bilakatzen denean, emaitza bikoitza eman zuen: gaztelera / frantsesean alfabetatzea, eta aldi berean euskal kulturaren galera: euskararen akulturazioa¹.

Instituto Nacional de Estadística-k

(INE) Donostian dituen bulegoetako datuak arakatu ondoren, jarraian eskaintzen dugun taula egin dugu. Bertan, Hegoaldean eman den alfabetatzea erakusten dugu. Nabari agertzen zaigu lehen urteetan, XIX. mendean, alfabetatzea gizonen artean emakumeen artean baino altuagoa dela. Eskerrak denborarekin gauzak aldatu direla, eta 1940 urtean zehar ez zen sexuen arteko bereizketa hain nabarmen agertzen. (1. taula)



Espaniar legea 1857. urtekoa dela kontuan hartzen badugu, 43 urtetan (1900), emaitza nabarmenak lortu zituen (%55 gizon eta %43 emakume alfabetatuak). Behatzen dugun denboraren amaieran (1940) – 83 urte geroago – populazioaren %80 jada alfabetatua zegoen. (1. marrazkia)




1. Marrazkia: Oinarritzko irakaskuntzaren bilakaera: 1860 eta 1940 urteen artean alfabetatuak

¹ 1857. ean Claudio Moyano-ren legea agertzen da (España), eta 1882 Jules Ferry-ren legea (France). Lege hauen azterketa labur bat Sabin Oregin aurki dezakegu. *Contribution des médias basques à l'extension fonctionnelle de l'euskara: de l'intérêt des socio-types linguistiques. Analyse prospective*. Argitaratu gabeko tesia, Bordeaux, 28-XI-1997, 48-53 orriak (1. liburukia); legeen testu osoa irakurtzeko Annexe C (2. liburukia), 584-601 orriak (Moyano) eta 602-603 (Ferry).


Ikasturtea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Iparralde	Nafarroa	Guztira
1977-78						
1978-79						
1979-80						
1980-81						
1981-82						
1982-83						
1983-84						
1984-85						
1985-86						
1986-87						
1987-88						
1988-89						
1989-90						
1990-91						
1991-92						
1992-93						
1993-94						



ik asi



Ikasturtea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Iparralde	Nafarroa	Guztira
1977-78						
1978-79						
1979-80						
1980-81						
1981-82						
1982-83						
1983-84						
1984-85						
1985-86						
1986-87						
1987-88						
1988-89						
1989-90						
1990-91						
1991-92						
1992-93						
1993-94						




2. Taula. Ikastola ikasle kopuruaren bilakaera, lurraldearen arauera



Ikasturtea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Iparralde	Nafarroa	Guztira
1977-78	989	5 472	17 674	54	1 175	23 116
1978-79	989	7 355	18 091	82	1 467	28 003
1979-80	1 728	8 535	19 544	121	1 957	32 618
1980-81	2 223	9 620	21 898	165	2 464	36 470
1981-82	2 669	10 727	23 450	203	2 900	39 816
1982-83	2 618	10 018	25 468	254	3 367	43 063
1983-84	3 432	12 387	26 105	304	3 794	46 364
1984-85	3 812	13 189	27 537	353	4 161	49 435
1985-86	2 502	14 197	28 142	393	4 439	49 300
1986-87	2 676	14 551	28 452	428	3 014	49 121
1987-88	2 820	15 274	29 096	439	3 116	50 745
1988-89	2 865	15 271	28 146	435	3 100	49 994
1989-90	2 913	15 148	27 333	461	2 994	48 849
1990-91	2 910	15 006	26 202	516	3 101	47 735
1991-92	2 991	14 784	25 076	562	2 495	45 908
1992-93	3 004	14 623	24 003	612	3 007	45 249
1993-94			21 749	670	3 002	3 672

Iturria: Lan Kide Aurrezkoa (1977-78tik 1981-82ra, eta 1984-85ra Nafarroakoak), Eusko Jaurlaritza (1982-83tik 1992-93ra), Nafarroako Gobernuia (1985-86tik 1993-94ra), eta SEASKA (1977-78tik 1993-94ra). 1981-82 ikasturterako Jakin aldizkaria 28. zka. (1983), 10. orria. 1993-94ko Gipuzkoako lurraldeari buruzko datoa Gipuzkoako Ikastolen elkarteak eskaini zigun.

Oharra : Horregatik, adibidez, Iparraldean ez dira agertzen Ikastola ikaslerik Lapurdi garaia (51 zenbakiduna mapan) eskualdean baino, bertan baitago Kanboko ikastola.





1. Mapa. Ikastolaren banaketa geografikoa.



Helduen euskalduntzea


Ikasturtea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Iparralde	Nafarroa
1981-82					
1982-83					
1983-84					
1984-85					
1985-86					
1986-87					
1987-88					
1988-89					
1989-90					
1990-91					
1991-92					
1992-93					
1993-94					





Helduen euskalduntzea

Ikasturtea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Iparralde	Nafarroa
1981-82					
1982-83					
1983-84					
1984-85					
1985-86					
1986-87					
1987-88					
1988-89					
1989-90					
1990-91					
1991-92					
1992-93					
1993-94					



5. Mapa. X ereduaren banaketa geografikoa.

Azkenik gogoratu behar dugu, datuak jaso ditugun moduaren erruz, ez dugula ezagutzen Iparraldean euskarazko eredurik erakusten ez duten eskoletan gertatzen dena. Hala ere, badakigu euskara erakusten ez duten ikastetxe kopurua nahiko orokorra dela lurralde horretan.

Helduen euskalduntzea

Euskararen bilakaera aztertzerakoan ezin dugu eskolaren garapenaren azterketa soil a egitearekin geratu. Horrengatik gure kemena helduen euskalduntze eta alfabetatzearen azterketara zabaldu nahi dugu. Baina lan horretan sartu aurretik gogora dezagun, modu laburre-

an, bilakaera historikoa.

1966 urtean Euskal Herriko bazterretan euskal hizkuntza eta kultura berreskuratzeko asmoarekin zenbait giza-mugimendu sortzen dira, hau gau-eskolaren mugimendua da. Mugimendu honek, denboraren zehar, Ikastolarenari jarraitzen dio, eta helduengan eragin berezia dauka. Euskaraz alfabetatzeko mugimendua da. Rikardo Arregiren garaia da.⁴

1972. urtean Euskaltzaindiak mugimendu hauei koherentzia eta antolaketa eskaintzeko asmoarekin bere « Jagon » sailean sartzeko erabakia hartzen du. Aldi berean hizkuntzaren ezagutza





baiezteko diploma bat sortzen du: D maila.⁵ Oraindik une honetan euskalduntzean lan egiten zuten taldeen artean ez zegoen inongo erlaziorik. Une honetan erakuntza udalerrri mailakoa da, baina ez zuten harremanik beste herrietako taldeekin. Antzera, eskualdeetako harremanak oso ahulak ziren. Eraketa mota hau oso aldakorra da, ta Araban nahiz Nafarroan bere presentzia oso ahula da.

Urte batzuk geroago, 1978. urtean, Euskaltzaindiak Alfabetatze Euskalduntze Kordinakundea (AEK) sortzeko erabakia hartzen du, modu horretan gau-eskolak kordinatzeko. (3. taula)

3. Taula. Euskara ikasten duten helduak, lurraldearen arauera.


Ikasturtea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Iparralde	Nafarroa
1981-82			4864	671	
1982-83	3660	10064	5104	642	3206
1983-84	4432	13976	7270	870	2777
1984-85			4512	1003	2622
1985-86	2853	9173	5262	796	2688
1986-87	2787	9273	4688	552	2711
1987-88	2258	8424	4348	530	2689
1988-89	1954	6748	3225	538	2049
1989-90	937	5681	2854	688	1293
1990-91	921	5137	2642	719	1658
1991-92	1167	5893	3271	759	2012
1992-93	1071	5961	3081	741	2068
1993-94	1173	6731	3465	827	




Iturria: AEKko datuekin landutakoa.





Euskararen estatus soziala

ik asi







Euskararen estatus soziala



7. Mapa. Euskalduntzearen zabalketa geografikoa.



8. Mapa. Alfabetatzearen zabalketa geografikoa.

6. maparen ezkerrekoan erakunde publikoak (Udal zein gobernu euskaltegiak) non kokatzen diren erakusten da. Nafarroako Gobernuak euskalduntzea bultzatzeko erakunde berezirik sortu ez badu ere, zenbait Udal ikastetxe agertzen dira Sei haranak (44), Ega behera (28), Tutera-Herribera (40), eta Iruñerria-n (36).

6. maparen eskubikoan, ordea, euskaltegi pribatuak kokatu ditugu. Marrakia egiteko aurkitu dugun zail-

tasuna bide ez dira euskaltegi pribatu guztiak agertzen, eskualdean ikasle gehien biltzen dituen baina. Hala ere, erraza da AEKaren zabalpen orokorra euskal lurralde guztian ikustea.

Euskararen estatus soziala

Orain arte ikusi ditugun datuen araberá, pentsa dezakegu euskara normal-kuntzaren bidetik abiatu dela, bereziki EAEko lurraldeetan.


Aldiz, Bordeleko unibertsitatean

duela gutxi aurkeztu den doktorego tesi batek erakusten du nola oraindik euskal gizartearen erreferentzia taldea A0 sozio-tipoa dela (euskaldun zaharra alfabetatu gabea). Lan horretan Euskal Herrian diharduten komunikabideak lurralde bertan dauden hizkuntzen hizkuntz-espazioekin erlazioan jartzen dira.


Aurreko marrazkian hizkuntz alok-tonoek hizkuntz-egoera normaldua dutela ikus dezakegu, bertako hiz-

Ekarpena

Idazkera harmonikoak ahalbidetzen (eta III)




E. Makurdura



Ekarpena

Idazkera harmonikoak ahalbidetzen (eta III)



E. Makurdura

Ekarpena

Idazkera harmonikoak ahalbidetzen (eta III)



Irune IBARRA
Psikologoa eta grafologoa

Idazkera harmonikoak ahalbidetzeko pautak aipatzen ari naiz azken aleetan eta ildo horri jarraituz beste hainbat elementu aztertuko ditut jarraian. Makurduraz, lerroen norabideaz, presioaz, abiaduraz eta sinaduraz hitz egingo dizuet oraingoan.

E. Makurdura

Bertikal eta pixka bat eskuinerantz idaztea da egokiena, 90 eta 120 gradu bitartean.

Zer ahalbidetzen du letrak bertikal egiteak?



- Autokontrola.
- Arrazionaltasuna.
- Epai objektiboak edukitzea.
- Jarrera independenteak.

Zer ahalbidetzen du letrak apur bat eskuinera egiteak? (egokiagoa dela iruditzen zait).



- Jakin-mina, interesa, parte-hartzea.
- Beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko jarrera zabala, lagunkoia.
- Taldeetan integrazioa.
- Arrazoi eta sentimenduen arteko oreka mantentzen da. Sentimenduen goxotasuna arrazoiarekin elkartzen da.
- Idazkerak arintasuna lortzen du eta erosoagoa da honela idaztea.

Jean Piaget eta B. Inhelder-ek eginitako ikerketetan ("La représentation de l'espace chez l'enfant. PUF, Paris, 1948. urtean) zera zioten:


"5etik 7 urtera bitarteko haurrek, egitura aukerak oraindik ahulak dituztenez, idazten ikasten dutenean lehenik bertikal-ki idatzi behar dute eta idazkera koordinatu horizontal eta bertikalen artean kokatu. Adin honetako haurrek nekez ebaluatzen eta egiten dute lerro zeharren paralelismoa".

Beraz, 8 urtera arte bertikal idazten

irakatsi ahal zaie eta hemendik aurrera pixka bat eskuinera makurtu. Gainera, garai honetan hasten dira orria apur bat makurtzen (eskuinek ezkerreara eta ezkerrek eskuinera). Grafoterapiarekin eduki dudan esperientziaren arabera, gainera, haurrei (eta helduei ere) ezin zaie elementu bi aldi berean egiten irakatsi. Adibidez, zaila da letraren forma ikasten dabiltzan bitartean makurdura ere zaintzea. Buruak aldi bakoitzean agindu bat onartzen du.

Eskuinerantzko makurdura idazkeraren dinamismoaren funtsezko elementuetako bat da. Haurrak idazkera makurtzeko nahian ez gara lehiatiak izango. Adin hauetan (eta aurretik ere bai, noski) norberaren gustuak edo zaletasunak ere hartu behar dira kontuan.

Ahal den neurrian ekidin:




Makurdura irregularreko idazkerak (anbibalenteak, 20 gradu baino gehiagoko makurdura-desberdintasunak letren artean). Anbibalentzia egoera erakusten du. Pertsonak ez du bere nia aurkitzen, hainbat joerak erakarria sentitzen da, barne-borroka antzeko batean.



H. Abiadura


I. Sinadura eta izenpeam

ik asi





H. Abiadura



I. Sinadura eta izenpeam

ik asi



tik zuzendu aurretik.

Presioa, bizitasun maila, gaixotasunak, sentimenduen indarra, ikusmenezko oroimena, protagonismoa, hitzei kolorea ematea... ikus daiteke.

Ondo dago idazkortza era erlaxatu batean eustea.

Disgrafikoen idazkerak gehiegizko presioa erakusten dute. Askotan presio irregularra erakusten dute.

H. Abiadura

Haurren idazkeretan abiaduraz baino erritmoaz hitz egiten da. Pentsamenduaren eta lanak egiteko eraren arintasan-gelditasuna erakusten du, pertsonaren bizitza-erritmoa, hain zuzen ere.

Erritmoaren hezkuntza oso garrantzitsua da, batez ere haur batzuen progresioa zalantzazkoa, astinduz betetako, blokeoduna... denean, hots, idazkera "totelka" doala dirudienean. Haur batek bere adinerako edo gelarekiko oso geldiro idazten badu, gelditasun honen zergatiak aurkitu beharko ditugu: ortografia arazoak, motrizitatean ahultasuna, nortasuneko inhibizio handiak, bizi-erritmo oso patxadatsua...

Zelan lor daiteke haurrek euren idazkeran abiadura lortzea? Lotura burutsuak egiteaz gainera, txirikordak letrekin tartekatuz eta arintasan-kontsignak emanik.

I. Sinadura eta izenpeam

Sinadura eta izenpea ez dira zehaz-

ki generoak (neurria, jarraitasuna... diren bezala), zeinuak baizik, baina asko ikertu dira eta kontuan hartu eta zaindu beharreko elementuak izan ohi dira.

1. Testuko eta sinadurako ezaugarriak antzerakoak izatea da hoberena. Testuan, pertsonak bere "gizarte-*nia*" azaltzen du, hau da, kanpoaldera begira zelakoa den. Eta sinaduran "*barne nia*" erakusten du, hau da, sendi giroan eta bere buruarekin zelan sentitzen den, zelakoa den barru-barrutik. Pertsonaren osasun psikologikorako berdintasun bat egotea da sanoena. "Esan eta izan" esaldia betetzen da honelakoetan.

2. Orokorrean haurrek sinadura orriaren ezkerreko aldean jartzen dute. Euren buruak hemen kokatzeak, oraindik etxeko giroaren babesean daudela adierazten du. Ondo egongo litzateke sinadura orriaren erdian edo apur bat eskuinerantz jartzera animatuko bage-nitu: ekimen handiagoa izaten, gizartean egokitzapen errazagoa edukitzen eta euren burua independenteago sentitzen lagunduko genieke.

3. Testuaren eta sinaduraren artean hurbiltasuna egotea ondo dago, eremu bi hauen arteko komunikazio ona islatzen duelako. Ekidin sinadurak testua gainezkatzea.

4. Sinadura horizontalki edo % 10a arteko igoerarekin idaztea onuragarria da, ez aldiz beherakorra edo 10 gradu baino gehiagoko igoerarekin egitea

(errealak ez diren helburuak eta ezine-gona erakusten du). Izen eta abizena(k) jartzeko ohitura hartzea ere gomendagarria da. Ekidin inisial hutsak, bi abizenak izenik gabe jartzea, abizena izenaren azpian ipintzea... Izenpea ulergarria izateak naturaltasuna eta zintzotasuna erakusten du.

5. Zenbat eta izenpe sinpleagoa eta txikiagoa egin hobe, orduan eta berezkoagoa eta jatorragoa baita pertsona. Azaldu hurrei izenpeak ez duela ezertarako balio, lehenago ohitura zahar bat besterik ez dela. Kontatu gertakari historiko hau:

Erdi Aroan, izen-abizenen ostein tinta gorriarekin **Scriptis Firmavit Recognovit** jartzen zen, eskuizkribua benetakoa zela argi uzteko.

Denboraren joanean hiru hitz hauek desitxuratuz joan ziren eta izenpearen forma hartu zuten. Ez dago inolako araurik berau egiteko eta ohitura bat baino ez da. Gutxiagotasun sentimenduak estaltzeko defentsa mekanismo ugari agertzen dira bertan.

Ekidin:

Izenpeak sinadura ezabatzea, norberaren buruaren aurka joatea eta atsekabea adierazten duelako.




Borobiltzea, besteengandik urruntzeko era bat baita.



Gehiegi azpimarratzea, besteekiko dependentzia erakusten baitu. Besteek



norberaren merituak txalotu behar hau ziurtasun ezaren seinalea izaten da.






Oso izenpe konplexu eta ulergaitzak egitea. Horrenbeste bira egiteak

eta ez ulertzeak ingurukoak nahasten ditu. Pertsonak ez du aurpegia ematen, ezkutatu egiten da.









KANTIRURI

Gidaliburua



gustatu zaiela. Orduan bigarren kantu bat idatzi dugu udazkenari buruz, nahi genuen hiztegia sarraraziz, aire alai bat asmatuz eta horrela segitu dugu urtean zehar sasoiak, abereak, eguraldiak hunkituz.

Bi asmo genituen beti: musika lantzea erritmo egoki batekin eta hizkuntza aberastea, ikastea, haurrak gorputzaren mugimenduaren bidez anitz gai bereganatzen baititu.

Beraz, 25 kantuak asmatuak izan dira hiru helburu hauekin: musika, motrizitatea eta hizkuntza.

Zer aurki daiteke gidaliburuan? Zein erabilpen du irakasleontzat? Eta ikasleontzat?

Aines Dufau.- Gidaliburua modulu antolatua da, kantu bakoitzaren erabiltzeko bide hauek eskainiz: kantuen hitzak, beharrezko lexiko balio-kideak beste euskalkietan (adibidez sagarroiarentzat: kirikiñoa edo trikua), musika partiturak, helburu pedagogikoak eta horien lantzeko proposatzen diren jarduerak lauki batean bilduak. Ondotik, ustiapena dator: jokoak edo ariketak, bai eta ikasleek margotuko duten marrazkia. Batzuetan, karta joko bat marrazkitan eman dugu.

Modulu bakoitzaren bukaeran beste

kantu, olerki edo joko batzuen erreferentziak emendatzen ditugu, irakasleak edo animatzaileak gaia sakondu nahi badu.

Gidaliburuaren eranskinetan kantuetan lantzen diren jakintasun edo konpetentzien aurkibidea, bai eta eba-luaketa fitxak ere, aurki daitezke.

Kantiruri Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzuak argitaratu duen lehen ikasmateriala da. Zer behar ikusi duzue horretarako?

Aines Dufau.- Lehen-lehenik azpimarratzekoa da argitalpen saila bultzatu baino lehen, 1997an inkesta egin genuela euskara edo euskaraz irakasten dutenen artean, jakiteko zertan zituzten behar handienak, kondutan hartuz Hego Euskal Herrian argitaratzen den ikasmateriala. Ondorioz, bagenekien Kantiruri behar baten asetzeko materiala izan zitakeela.

Pantxika eta Graxi Solorzano etorri zitzaizkigularik beren kantu bildumaren aurkeztera, biziki interesgarria aurkitu genuen eta pentsatu ikasmateriala oso baliosa egin genezakeela elkarrekin, gidaliburua CDarekin batean sortuz geroz.

Bestalde, urrats garrantzitsua eman dugu lan egiteko moldean: Pantxikarekin, Graxiarekin, bai eta hiru sareetako (erran nahi baitu eskola giristinoetako, publikoetako eta ikastoletako) irakasleekin gidaliburuaren apailatzen ari izan gara zenbait hilabetez, kemen handirekin. Ohargarri da irakasle horiek beren eskolako lanez gain egin dutela lan hori.

Kalitatearen bermea erdietsi dugu, bai hizkuntzaren aldetik (Xarriton, Oihartzabal eta Davant euskaltzainen laguntzari esker), bai eta pedagogia sailean ere, pedagogia arduradunen esku hartzeari esker.

Nolako harrera izan du orai arte Kantirurik?

Pantxika Solorzano.- Haurrek ikasgelan ikasi dituzte kantuak eta ondotik, burasok beren haurrak kantuz entzun eta, diska atera delarik, gogotik erosi dute. Geroztik, irakasleek aipatzen dute lan tresna egoki bat

dela ama eskolarentzat (bost urte arte), eta lehen mailarentzat ere (8 urte arte).

Aines Dufau.- Publiko zabalaren aldetik harrera biziki ona ukan du orai arte Kantirurik. Eguberriko garaian jalgi genuen eta jende askori CDa bere liburuxkan opari oso polita iduritu zaio.

Geroztik, arrakasta bildu du gidaliburuak ere irakaskuntza alorrean. Izan ere, ikasmaterial honek osotasunik badauka eta eredu guzietan erabil daiteke.

Iparraldean arras ongi zabaldu dugu eta Hegoaldean ere harrera ona jaso du. Adibidez Donostian izan diren Musika Irakasle Euskaldunon Lehengo Topaketaren kariatara. Han bildu ziren 150 bat irakaslek interes handia aurkitu diote.

Musika arloa gehiago lantzeko asmorik ba al duzue?

Aines Dufau.- Beharra hor dago eta Donostian iragan den lehen musika irakasleen topaketak agerian eman du. Agian lan amankomuna egin daiteke Ipar eta Hego Euskal Herriko musika irakasle euskaldunen artean.


Iparraldeari doakionez, argitalpen sailean, hutsune larriak badaude premia handiko alorretan (natur zientzietan, historian eta geografian, euskararen irakaskuntzan, besteak beste). Badugu beraz zer egin euskarazko irakaskuntzako ikasmaterialaren sortzeko, kondutan hartuz Hego Euskal Herrian egiten dena eta Ipar Euskal Herrian falta dena curriculum ezberdinak izanki han eta hemen.

Kantiruri:
CD bere liburuxkan :
120 lib/3000 Pta.
Gidaliburua:
60 lib/1500 Pta.
Banatzailea: BITARTE
(943) 55.05.72
Faxa (943) 55.75.54.
E-mail: bitarte@trevenque.es

ARGITALPENAK


INGURUGIRO
HIZTEGI
ENTZIKLO-
PEDIKOA


IBILTZEN



B

VI. Jardunaldi pedagogikoak: "Aniztasunaren pedagogia"






ARGITALPENAK

INGURUGIRO
HIZTEGI
ENTZIKLO-
PEDIKOA

IBILTZEN

B

VI. Jardunaldi pedagogikoak: "Aniztasunaren pedagogia"



Berriak

ARGITALPENAK



IBILTZEN
20. zenbakia
1999ko
udaberria

BIGEek argitaratzen duen aldizkariaren ale berri honetan Txorierriko ikastetxeen berri ematen zaigu. Iruñeko Ermitagaña, Donibane eta Mendebaldea auzoetan D ereduari ikasi nahi duten ikasleen egoeraz ere informazioa aurki dezakegu. Eta baita Estrasburgon dagoen Hezkuntza Publikoko Hizkuntza Erregionalen Federakundeaz ere.



INGURUGIRO
HIZTEGI
ENTZIKLO-
PEDIKOA

Eusko
jaurlaritza
448 orr.

Elhuyar Kultur Elkartek egin eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak argitaratu duen hiztegi entziklopediko hau ingurugiro arloko adituek eta teknikarientzat argitalpen baliotsua izateaz gain, eskoletan kontsultamaterial edo iturri bezala erabiltzeko hiztegia da, ingurugiroaren arloko geroz eta garrantzi handiagoa baitu hezkuntza programetan.

VI. Jardunaldi pedagogikoak: "Aniztasunaren pedagogia"

Ikastolen Federazioaren urteroko jardunaldi pedagogikoak Miarrizteko Domaine de la Françon burutuko dira aurten maiatzaren 12, 13 eta 14ean. Seaska arduratu da antolaketaz eta honoko egitaraua prestatu du:

Asteazkena 12

Goizean: "Haurren arteko diferentzia, garapenerako eragile dinamikoa". Hizlaria: Pierre Vayer, Hezkuntza zientzietan eta psikologian doktorea, Piaget Institutuko ikerketa zuzendaria, Toulouse Le Mirail eta Cherbrooke Unibertsitateko irakaslea.

Arratsaldean: "Ikasleei egokitutako eskola". Hizlariak: Jose Ramon Orcasitas, Javier Monzon, Luis Mari Elizalde eta Amaia Mendizabal, EHUko Pedagogia Fakultateko Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saileko irakasleak.

Gauean: gurasoentzako saioa: "Haur

elbarrituen egoera".

Osteguna 13

Goizean: "Aniztasunaren pedagogia eta interkulturalitatea". Hizlaria: Jean Michel Zakhartchouk -MAPFEN eta IUFM irakasleen prestakuntzarako hezitzailea. "Cahiers Pédagogiques" aldizkariako erredakzio batzordeko partaide.

Arratsaldean: "Buru erabilketa: ikaslea bere ikasteko moldeaz jabetzeko tresna". Hizlaria: Armelle Geninet, Kolegioan eta Lizeoan irakasle eta ikasuntzarako estrategietan hezitzailea.

Ostirala 14

Goizean: "Gela heterogeneoak". Hizlariak: Marinus Vader eta Marie Claude Grandguillot, pedagogoak, Madrilgo Eskola holandarreko zuzendaria eta Literatura klasikoko irakasle

eta MAPFEN eta IUFMeko hezitzailea.


Arratsaldean: "Eskola, aniztasunaren erronkaren aintzinean". Hizlaria: Alain Kerlan, Filosofian doktorea eta INRF-ko ikerlea.


Gauean: gurasoentzako saioa: "Eskola dibertsitatearen aintzinean".



praktikaten

.....








praktikaten


.....




1a	Zenbat irakasle dago ikastetxean?	1-7 <input type="checkbox"/>	7-15 <input type="checkbox"/>	15-30 <input type="checkbox"/>	30-50 <input type="checkbox"/>	+50 <input type="checkbox"/>
1b	Horietatik zenbatekoa da irakasleria iraunkorra?	%10 <input type="checkbox"/>	%30 <input type="checkbox"/>	%50 <input type="checkbox"/>	%70 <input type="checkbox"/>	%90 <input type="checkbox"/>
1c	Zuzendaritza taldearen iraunkortasuna: 1 = urtebeterako dago 2 = bi ikasturte darama eta ezin du jarraitu 3 = hiru ikasturte edo gehiago darama eta ezin du jarraitu 4 = hiru ikasturterako hartu du konpromisoa 5 = hiru urte baino gehiago darama eta jarraitu egingo du	1 <input type="checkbox"/>	2 <input type="checkbox"/>	3 <input type="checkbox"/>	4 <input type="checkbox"/>	5 <input type="checkbox"/>
2	Zenbat urte darama ikastetxeak dauden etapak eskaintzen:	1-3 <input type="checkbox"/>	4-7 <input type="checkbox"/>	7-12 <input type="checkbox"/>	+12 <input type="checkbox"/>	
3	Klasetik aparte, beste ekintzetarako dagoen denboratik zenbat erabiltzen da Administraritzatik etorritako eskaerak erantzuten?	%10 <input type="checkbox"/>	%30 <input type="checkbox"/>	%50 <input type="checkbox"/>	%70 <input type="checkbox"/>	%90 <input type="checkbox"/>
4	Ikastetxea egitura eraldaketa garrantzitsuetan egon da (edo egongo da) sartuta: etapen desagerpena, etapa berrien ezarpena, irakasleriaren birkokapena... honako epeetan: 1 = ikasturte honetan 2 = azkenengo edo hurrengo ikasturtean 3 = 3 urteko tartean 4 = 4-5 urteko tartean 5 = 6 urte edo gehiagoko tartean	1 <input type="checkbox"/>	2 <input type="checkbox"/>	3 <input type="checkbox"/>	4 <input type="checkbox"/>	5 <input type="checkbox"/>
5	Banatu irakasleriaren ehunekoa ikastetxean eman duten urteen arabera:	0 urte %....	1-3 urte %....	4-6 urte %....	6-10 urte %....	+10 urte %....
6	Zure ustez, ikastetxearen jarraikortasuna ziurtatua ala arriskuan dagoen adierazi: "1" markatu jarraikortasuna arrisku handian badago eta "5" oso ziurtuta badago erdi eta luze epe batean. Bestela, tarteko zenbakiak markatu.	1 <input type="checkbox"/>	2 <input type="checkbox"/>	3 <input type="checkbox"/>	4 <input type="checkbox"/>	5 <input type="checkbox"/>
7a	Balora ezazu ikastetxean duzuen espazioaren egokitasuna eta nahikotasuna: gelak eta kanpoko espazioak batez ere. Marka ezazu 1 ezegokiak badira eta 5 oso egokiak badira.	1 <input type="checkbox"/>	2 <input type="checkbox"/>	3 <input type="checkbox"/>	4 <input type="checkbox"/>	5 <input type="checkbox"/>
7b	Ikastetxearen urteko aurrekontuaren kopurua (langileen gastuak sartu gabe).	milioi 1 arte <input type="checkbox"/>	1-2,5 milioi <input type="checkbox"/>	2,5-5 milioi <input type="checkbox"/>	5-10 milioi <input type="checkbox"/>	+10 <input type="checkbox"/>
7c	Zenbat ordenagailu, bideo gela, laborategi... daude eskolan.	ordenagailuak <input type="checkbox"/>	bideo gelak <input type="checkbox"/>	laborategiak <input type="checkbox"/>	liburutegiak <input type="checkbox"/>	
8	Astero zenbat ordu daude irakasleen artean bilerak egiteko?	lan ordutegian <input type="checkbox"/>		lan ordutegitik kanpo <input type="checkbox"/>		
9a	Ikastetxean IHPa egina dago?		BAI <input type="checkbox"/>		EZ <input type="checkbox"/>	
9b	Azken urteotan ikastetxearen helburuei buruz eztabaidak izan dira (edota erabaki batzuk hartu izan dira)?		BAI <input type="checkbox"/>		EZ <input type="checkbox"/>	
9c	Markatu hurrengo esaldiarekin zure adostasun maila: 5a oso ados bazaude, 1a batere ados ez bazaude. <i>Irakasleen artean nahiko adostatuta dago ikastetxeak zer landu behar duen eta nola egin, prozesua geldiezin bada ere.</i>	1 <input type="checkbox"/>	2 <input type="checkbox"/>	3 <input type="checkbox"/>	4 <input type="checkbox"/>	5 <input type="checkbox"/>

praktikaten

.....








praktikaten


.....




ITEM	HAUSNARKETARAKO JARRAIPIDEAK	AUKERAK / ARRISKUAK
1a	<p>Ikastetxearen neurria aldagai eraginkorra izan daiteke eraldaketa prozesua proposatu edo kudeatzerakoan.</p> <p>Irakasle gutxiko ikastetxeetan prozesuaren zailtasun maila apaldu egiten da, nonbait. Gutxiren artean errazagoa izango da antolamendua, eta komunikazioa ere asko erraztuko da. Horrelako egoeretan merezi du lehentasunak erabakitzeke denbora hartzea, gutxi izanda, errazago lortuko da adostasuna. Baina edozein eraldaketak berarekin dakarren energia kostea gutxiagoren artean banatu behar da eta horregatik eraldaketak oso ondo aukeratu behar dira, dauden bitartekoei ahalik eta etekin handienak ateratzeko. Zaila izango da eraldaketa batzuk aldi berean garatzea. Ondo programatu eta prozesuak sortzen duen higadura kontuan hartu beharko da.</p> <p>Irakasle asko dauden ikastetxeetan sormena eta eraldaketarako aukerak biderkatu egiten dira. Eraldaketa prozesuan aurrera ateratzeko bitarteko gehiago izango dira. Errazagoa izango da gai bati buruz irakasle batzuk interesatuak izatea. Aukera gehiago dago aldi berean hainbat eraldaketa garatzeko, talde ezberdinak antolatuzeko. Iritzi eta esperientzien trukaketa oso aberatsa izan daiteke. Ahalegin gehiago egin behar dugu antolaketan. Komunikaziorako eta koordinaziorako tresna egokiak prestatu behar dira. Ikastetxearen ikuspegi orokorra ez galtzeko ahaleginak egin behar ditugu.</p>	
1b	<p>Behin-behineko irakasleak oso baliogarriak izan daitezke, baina bere egoera pertsonalak hartu behar ditugu kontuan konpromiso pertsonala eskatzerakoan.</p> <p>Irakasleri-mota honen ehunekoa oso altua bada, kontuan hartuko da eraldaketarako proposamenak egiterakoan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - proposamenak epe motz batean emaitzak lortzekoak izango dira - egunez egungo arazoei erantzuna ematekoak - gelako praktikarekin zerikusia dutenak - esperientzia pertsonal aberasgarria planteatzen dutenak <p>Gehiago kostako zaigu eraldaketa programatikoetan eta epe luzerakoetan beren inplikazioa lortzen. Beste aldetik, proiekturako pertsona garrantzitsuren bat bada, prozesua moztuta geratzeko arriskua dago bera joaten denean.</p>	
1c	<p>Zuzendaritzak eraldaketa prozesuan duen eragina nabarmena da. Kontuan izan behar dugu bere motibazioa, prestakuntza, esperientzia, duen euskarria eta abar.</p> <p>Zuzendari berria bada, oso onuragarria izan daiteke, ikuspuntu eta asmo berriak ekar ditzakeelako. Aurreko esperientzia ere lagungarria da.</p> <p>Oso garrantzitsuak dira karguan jarraitzeko bere buruarekiko dituen aurreikuspenak ere. Hala ere, zuzendaritzan luzaro egotea pentsatzen ez badu ere, beti egon daiteke ekarpena egiteko aukera eta horri eutsi beharko dio.</p>	
2	<p>Etapa berria ezartzen denean, horren finkapenak eta sendoketak lehentasuna dute. Hortaz, etapa berri bat ezartzen denean ahaleginak sendotze prozesu horretan sartuko dira gehienbat. Egoera honek aukera ezin hobeak eskaintzen dizkigu hainbat alorretan (metodologian, ebaluaketan, antolakuntzan, taldeketan...) berrikuntzak egiten saiatzeko. Baina, aldi berean, edozein berrikuntza egiten saiatu baino lehen, eguneroko funtzionamendua bermatu behar da. Horrek, hasieran batik bat, koordinazio eta erabakiak hartzeko denbora luzea eskatuko digu.</p> <p>Horretan gutxienezko normalitateak lortuz gero, gorago aipatutako eraldaketei heltzeko garairik aproposena bera da.</p> <p>Arreta handia jarri behar da eraldaketaren asetasun egoerara ez iristeko, hori oso kaltegarria izan baitaiket.</p>	
3	<p>Administraritzatik datozkigun eskaerak, batzuetan, oso baldintzagarriak izan daitezke. Gehienetan, erantzuteko beharra dago eta horrek lehentasuna ematen die. Gehienetan gainera, epe bat dago erantzun hori emateko eta, normalean, eskasa. Beraz, horrelako eskaera asko ematen direnean edo ahalegin handiak eskatzen dituztenean (ICP, AIA...) erantzun egokia emateko antolamendua diseinatu behar da efikazia eta efizientzia bilatuz, beti ere.</p> <p>Ez dugu ahaztu behar eskaera hauek ikastetxean berrikuntza sakon eta emankorrak hasteko aukera eskain dezaketela, eta ez dira alferrik galdu behar. Bestetan, gure ikastetxearen helburuei bultzada emateko erabil daitezke, edota ikastetxearen beharrak eta hobetzeko alorrak azalaratzeko (ebaluaketa planean parte hartzen denean, adibidez).</p>	

praktikaten

.....








praktikaten

.....



ITEM	HAUSMARKETARAKO JARRAIPIDEAK	AUKERAK / ARRISKUAK
	<p>ezinbestekoak badira ere, beste zehaztasun gehiagoko beste tresna batzuk burutu behar dira. Tresna honek zein eraldaketa prozesu martxan jarri behar dugun erabakitzeke laguntza emango digu, baina sor daitezkeen behar berriei erantzuteke beste malgutasun ere izango du. Tresna hau programaketa tresna bat da. Epe ertainerako programazioa: 3-5 urterako. Zein izango ditugu programazio honen iturburuak? Lehendik, IHPa, programazio orokorrako batean kokatzeagatik eta berarekin koherentzia gorde dezala. Bigarrenik, Ikastetxearen diagnosi orokorra.</p>	
10	<p>Batzuetan, ikastetxean burutzen diren eraldaketak ez daude oso barneratuak. Guraso edota gizartearen presioa dugu eraldaketa hauen iturburu.</p> <p>Alde batetik, guraso eta gizartearen beharrei erantzuteko gauza izan behar dugu. Gizartean sortzen diren eraldaketen islak izan behar dute eskolan egiten diren eraldaketa asko. Baina eskolak funtzio kritikoa ere garatu behar du. Eraldaketa horiek aztertu, gogoeta amankomuna egin eta eman behar duen erantzuna erabaki. Horrela jokatzeko ez bada, eta ezartzen den eraldaketa ez badago barneratua, zailtasun gehiago aurkituko ditugu eraldaketa prozesuan. Alde batetik, eraldaketa zergatik eman behar den ez delako ondo ulertuko eta bestetik, inplikazio eza maizago emango delako. Gainera, zailago gertatuko zaigu gure helburuekin lotzea eta koherentzia mantentzea.</p> <p>Dena den, gizartean gertatzen diren eraldaketak ezinbesteko aukerak ditugu gure eraldaketen prozesuak bultzatzeko, ezarri ditugun helburuekin lotzea lortzen badugu. Ez dugu inoiz ahaztu behar eskolak gizartearen beharrei erantzuten diela eta ez alderantziz.</p>	
11	<p>Eraldaketa kantitatea dugu beste aldagaia. Lehen aipatu dugunez, eraldaketen inflazioa sortu da, azken urteotan. Baina eraldaketak kostu bat dakar, eta askotan ez txikia. Eraldaketa beharrezkoa badugu, gutxieneko iraunkortasuna ere bai. Nolabait oreka mantendu behar da. Horretan ere zikloak ematen dira. Zaila da eraldaketen erritmoa kontante mantentzea. Eraldaketa handiak sortzen direnean, eraldaketa horiek sendotzeko denbora beha da, eta horrela, eraldaketen erritmoaren zikloak sortzen dira.</p> <p>Bestela ere, eraldaketaren kostua hartu behar dugu kontuan. Eraldaketa asko martxan baldin badaude asetasunera irits daiteke. Asetasun horren ondorioak ere aurreikusi behar dira: eraldaketaren pisua beti berdinen gainean erortzen bada lehenago asetuko ditugu, eta baliabide horiek segituan higituko dira. Beharrezkoak diren eraldaketak denboran zehar banatu behar dira, lehentasunak markatu behar dira eta oinarritzkoenak zein diren igarri behar da.</p>	
12	<p>Ikastetxe guztietan eraldaketa kudeatzeko hainbat ohitura egoten dira eta kontuan hartu behar ditugu ohitura horiek. Alde batetik, ikastetxean eraldaketa kudeatzeko erari buruz informazio baliagarria ematen digutelako, eta bestetik, ikastetxean egiten diren eraldaketak nondik sortzen diren jakiteko pistak ere bai.</p> <p>Askotan, gure ikastetxeetan, eraldaketa asko zuzendaritza taldeak proposatzen ditu. Horrek alde on batzuk ditu: zuzendaritzaren aitzindaritasuna azpimarratzen du, antolamendurako baliabideak hobeto kontrolatzen dira, beharrezkoa den zuzendaritzaren euskarria berez lortzen da, prozesuaren arrakastarako bermea da...</p> <p>Badaude, ordea, kontuan hartzeko beste arriskubatzuk ere: zuzendaritzak askotan denbora gutxiago du eta eginbehar ugari; zuzendariak badu arazoak detektatzeko ikuspuntu on bat baina hain nabarmenak ez diren beharrak somatzeko ahaleginak egin behar ditu. Iniziatiba zuzendaritzatik etortzea gauza batzuetarako ona da, baina besteetarako txarra. Oro har, esan daiteke holako prozesuetan zuzendaritzaren bultzada eta euskarria beharrezkoa direla, baina guztion partaidetza eta konpromisoa eskatzen duela ahaztu gabe. Eraldaketaren eginbeharra denona da eta ez zuzendaritzarena soilik.</p> <p>Agian badaude irakasleen artean dinamikoagoak direnak, eraldaketa prozesuetan gehiago parte hartu edota bultzatzen dutenak. Dударik gabe, hauek ikastetxearen baliabideak dira eta beraietaz baliatuko gara. Irakasle hauek aproposak dira proiektuen koordinaketa eramateko, adibidez. Aintzat hartzeko alderdi batzuk dira, besteak beste, gainontzekoen beharrianak ere kontuan hartu behar direla, guztion partaidetza bultzatzea ere garrantzitsua dela eta irakasle hauek ere asetasunera irits daitezkeela.</p> <p>Ikastetxearen beharrak oso garrantzitsuak badira ere, pertsonalak ere kontutan hartu behar dira.</p>	

Euskara irakaskuntzan

Antolatzailea
Hezkuntzaren
Gizarte-GUNEA

Maiatzaren 29ko goiza
BILBO

Euskara irakaskuntzan

Euskal Herriak bere Hezkuntza Sistema behar duela pentsatzen dugunok aukera paregabea dugu antolatu den eztabaidan parte hartzeko.

Informazio eta izen ematea:

Hik Hasi aldizkarian.

Maiatzaren 18a baino lehen.

Tel.: 943 37 15 45

Faxa: 943 36 10 48

Antolatzailea

Hezkuntzaren

Gizarte-GUNEA

Maiatzaren 29ko goiza
BILBO

Euskara irakaskuntzan

Euskal Herriak bere Hezkuntza Sistema behar duela pentsatzen dugunok aukera paregabea dugu antolatu den eztabaidan parte hartzeko.

Informazio eta izen ematea:

Hik Hasi aldizkarian.

Maiatzaren 18a baino lehen.

Tel.: 943 37 15 45

Faxa: 943 36 10 48

Antolatzailea

Hezkuntzaren

Gizarte-GUNEA

**Maiatzaren 29ko goiza
BILBO**

Euskal Herriak bere Hezkuntza Sistema behar duela pentsatzen dugunok aukera paregabea dugu antolatu den eztabaidan parte hartzeko.

Hausnarketa puntuak:

- Euskalduntze prozesua.
- Hizkuntz ereduak. Ofizialtasuna. Normalkuntza.
- Irakasleriaren prestakuntza.
- Ikastetxeetako hizkuntz normalizazioa.

Informazio eta izen ematea:

Hik Hasi aldizkarian.

Maiatzaren 18a baino lehen.

Tel.: 943 37 15 45

Faxa: 943 36 10 48

Antolatzailea

**Hezkuntzaren
Gizarte-GUNEA**